

Irati Jimenez
Mikel Soto

Literatura librea eta libertatearen literatura: desesperoaren sakonetik esperantzaren gailurreraino

Norbaitek alor batean ekarpen izugarri bat egiten duenean, logikoa ez ezik normala ere bada beste alor batzuetan egin dituenak horren itzalean geratzea; eta gure artean inork ez duenez inoiz pentsamenduaren alorrean Joxe Azurmendiren pareko ekarpena egin, normala da literaturari eman dion guztia bigarren mailan geratzea. Baina Azurmendiren heriotzak umezurtzago egin gaituen ordu saihetsezin eta triste honetan, Deabruaren Eskolako kideok, eman zigun laguntza eskertzeko beharraz gain, pentsalari, poeta, lagun eta gizon kolosal horrek literaturari egin zion ekarpen benetan kolosala gogoratzeko obligazioa sentitzen dugu.

Literaturaren alorrean, iruzkin literario eta analisi miresgarriak zor dizkiogu Azurmendiri, horiek bezain miresgarria eta urragarria den poesia urratu bat, beste hainbat idazle eta poetei laguntzeko egin zuen guztia eta haren obra osoari koherentzia, zintzotasuna eta nortasuna ematen dion ahots literario ahaztezin bat. Izan ere, idatzizko ahozko-tasun propio batekin idatzi zuen beti Azurmendik, pobreen unibertsi-tatea izan zen seminarioan entzundako euskalki guztietatik aberastu-tako euskara batuan, eta ahots hori garden eta argi, natural eta ozen entzuten da haren obra guztian, saiakeretan, poemetan eta era guztie-tako testuetan.

Sakon hitz egin genezake lau alor horiei buruz, eta konbentzituta gau-de on egingo ligukeela, nahiz eta horretan –eta beharbada horretan baino ez– ez genuen Azurmendiren beraren iritzia konpartitzen. Bere apaltasunean ere miresgarria zen gizonarekin literaturaz hitz egiteko pribilegioa izan duten guztiek ondo dakite zer gutxi gustatzen zitzaion bere poesiaz hitz egitea –haren baitan, poesia hori isiltasun mindu ba-tek inguratuko balu bezala–, eta ez bere poesiarekin soilik. Bizi zen ar-

tean, Deabruaren Eskolako kideok literaturaren teoriari, historiari eta kritikari eskaini zizkien idatzi guztien bilduma bat egiteko asmoa adierazi genionean, haren lehenbiziko erreakzioa halako egitasmo baten garrantzia zalantzatan jartzea izan zen, eta une batean kontra egoteari utzi bazion, gure libertateari zion errespetu etiko sakonagatik izan zen, ez bere ekarpen literarioaren garrantziari buruz iritziz aldatu zuelako.

Momentuz, egitasmo hori hasi baino ez dugu egin, baina konbentzitu-ta gaude Azurmendik literaturari buruz idatzi zituen testuen antologia batek inoiz euskal kritikari batek idatzi duen corpusik ikusgarriena osatuko lukeela. Literatura unibertsalaren ezagutza ezohikori esker, unibertsaltasun sakon baten ikuspuntutik begiratu zion euskal literaturari, zorroztasunez eta maitasunez, haren kontrako aurreiritzi barik eta haren aldeko aitzakiarik gabe. Libertatez egiten ez den literatura ez dela ez librea ez literatura sinisten zuen, eta bere idatzietan beti idatzi zuen libertatez eta libertatearen alde, hain falta handian dugun zintzotasunez eta hain beharrezko dugun heldutasunez.

Andretzeko eta gizontzeko garaia genuela idatzi zuen Arestik, eta Azurmendik andretzen eta gizontzen lagundu digu, bere etikaren pentsamendurekin eta pentsamenduaren etikarekin. Etika hori nabarmena da baita haren poesian ere. Soziala eta existentziala den haren poesian, herrian sustraitua eta unibertsala, Bitoriano Gandiagak esan zuen bezala. Desesperoarekin sakonetik esperantzaren gailurreraino doala idatzi zuen Gandiagak, arrazoi osoz. Eta beste hau ere bai, Azurmendiri eta haren poesiari buruz ia guztia esaten duen egia hau: «Joxeren poesiaren joera gizona da».

Humanitateari buruz eta humanitatez idatzi zuen beti Azurmendik, gizatasun egarritz eta anaitasun gosez, beti bere herriaren hizkuntzan eta bere herriarentzat beti. Beti guretzat, bere anai-arreba ginen eta beti izango garen euskaldunontzat.